

OpenCourseWare: Erizaintza Klinikoa I

IRAKASKUNTZA- GIDA

Irakasgaiaren aurkezpena:

Erizaintza Klinikoa I Erizaintzako Graduan bigarren mailan ikasten da. Irakasgai honetan giza gorputzeko aparatu eta sistemetako alterazio arruntenen azterketa fisiopatologikoa eta klinikoa ikasten dira, baita alterazio horietatik eratorritako beharrak eta erizaintzako zainketak ere. Honekin batera, praktika klinikoari aplikatutako dietetika ere ikasten da.

Ikasleak gaitasun orokor hauek lortu behar ditu:

- Prozesu fisiopatologikoak eta haien sintomak ezagutzea, baita bizi-zikloaren etapetan osasun eta gaixotasun-egoerak zehazten dituzten arrisku-faktoreak ere.
- Balorazioan jasotako datuak aztertzea, paziente helduaren arazoei lehentasuna ematea, zainketa-planak egin eta burutzea, eta plan horiek ebaluatzea.
- Erizaintza-zainketetarako teknikak eta prozedurak lantzea, eta harreman terapeutikoa ezartzea gaixoekin eta haien senideekin.
- Interbentzioak aukeratzea osasun-desbiderapenetatik eratorritako arazoak tratatzeko edo prebenitzeko.
- Taldeko kideekin lankidetzan aritzeko prest egotea.
- Pertsona osasuntsuek eta osasun arazoak dituztenek bizi-zikloan zehar dituzten elikadura-beharrak ezagutzea eta baloratzea, elikadura-jokabide osasuntsuak bultzatzeko.
- Elikagaiak identifikatzea eta zer jakitan dauden jakitea.
- Elikadura-arazo garrantzitsuenak identifikatzea eta gomendio dietetiko egokienak aukeratzea.

Irakasgaiaren programa eta gaien aurkibidea:

I.gaien atala. Ebaketarako erizaintza

- 1.Ebaketa aurreko zainketak
- 2.Ebaketa bitarteko zainketak
- 3.Ebaketa ondoko zainketak

II.gaien atala. Arnasbideko gaixotasunak eta gaixotasun pleuropulmonarrak

- 4.Bronkio eta biriketako gaixoen zainketen sarrera
- 5.Arnas gutxiegitasuna
- 6.Birika-bronkioen gaitz kronikoak
- 7.Arnas bide eta biriken infekzio-prozesuak
- 8.Birika-bronkioen minbizia
- 9.Pleuraren gaitzak
- 10.Toraxaren traumatismoak

III.gaien atala. Gaixotasun kardiobaskularrak eta erizaintzako zainketak

- 11.Kardiobaskularreko gaixoen zainketen sarrera
- 12.Frekuentzia eta erritmo kardiakoen aldaketak
- 13.Bihotz gutxiegitasuna
- 14.Kardiopatia iskemikoa
- 15.Endokardioko gaixotasunak
- 16.Balbulopatiak
- 17.Perikardioko gaixotasunak
- 18.Hipertentsio arteriala
- 19.Aortako gaixotasunak
- 20.Arterien arazoak
- 21.Zainen arazoak
- 22.Zirkulazio linfatikoaren gaitzak

IV. gaien atala. Praktika klinikoetara egokitutako dietetika.

23.Paziente kirurgikoen behar dietetikoak

24.Gaixo onkologikoen behar dietetikoak

25.Hipertentsioa edo bihotz gutxiegitasun duten gaixoen behar dietetikoak

26.Giltzurrun gutxiegitasuna, giltzurrun litiasia eta gota duten gaixoen behar dietetikoak

27.Asaldura metabolikoak dituzten gaixoen behar dietetikoak

28.Asaldura digestiboak dituzten gaixoen behar dietetikoak

29.Nutrizio enterala eta parenterala

30.Ebaluazio nutrizionala

Ebaluazioa:

Ikasleak, irakasgaia ikasi ondoren, hartutako ezaguerak autoebaluatuko dituzte test proba baten bidez.